



# *Administrazioko idazkiak berritu eta estandarizatzeko teknikak*



**Aitor Gorostiza**

Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko  
hizkuntza normalkuntzako teknikaria

[Erabilera planak herri-administrazioetan. Euskara teknikarientzako lan jardunaldiak](#)

2009-01-28

## Administrazioko idazkiak berritu eta estandarizatzeko teknikak

Aitor Gorostiza, Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko hizkuntza normalkuntzako teknikaria

“Administrazioko idazkiak berritu eta estandarizatzeko teknikak” da hitzalditxo honen izenburua eta, joko zelaia mugatzearen, azpimarratu eta argitu nahi nituzke izenburuak barruan dituen osagaiak:

- Berritzea
- Estandarizatzea
- Administrazioko idazkiak
- Teknikak

### **Estandarizatzea: bidea**

**Estandarizatu:** Zerbait estandar bihurtu. Estandarrak garatzeko eta adosteko prozesua. Baina... ‘estandar’, zer ote?

**Estandar:** Oro har onartua edo hedatua dena; eredu, arau zein erreferentzia gisa erabiltzen dena, ohituraz, hitzarmenez, edo norbaiten aginduz. Eta horretaz gain, dokumentu bat, era batean jokatzeko zehaztasun, irizpide, bide, prozedura edo jokabideak biltzen dituena.

Beraz, “**estandarizatu**”, labur bildurik, “antzekoak diren gauza batzuk arau edo eredu baten arabera egokitu, taiutu edo doitu.

Bide batez, estandarizaziorako nazioarteko erakundearen izena, [ISO](#) deritzana, ingelesez, ‘standardization’ den bitartean, frantsesez ‘normalization’ da, eta, hara! guretzat, hain ezaguna den hitza, euskara teknikariok lanbidearen izen, abizen edo goitzen darabilguna: normalizazioa. Eta adiera hauxe ematen dio ISO erakundeak estandarizazio/normalizazio siamdar bikote honi:

*Jarduera bat da, arazoei aurre egiteko jokabide komunak eta errepikatuak finkatzea helburu duena, zertarako eta emaitzarik onena lortzeko.*

Estandarizazioa eta normalizazioa uztarturik, langintza hau ez da bakar-bakarrik idazkiak eredu batera ekartzea. Normalizazioa ere baden neurrian, ez-normala den komunikazio- edo hizkuntza-egoera batetik ‘normala’ edo desiragarria den beste batera ekartzeko nahia ere adierazten du. Edota egoera normalean ez dagoen hizkuntza egon beharreko egoerara pasaraztea ere.

Kontuan hartu, testu honetan estandarizatu eta normalizatu hitzak erabiltzen ditudanean, bai euskarari bai erdarari begira egiten dudala; hots, bi hizkuntzetako testuak normalizatu eta estandarizatu beharrean daude, testu elebidunetan. Hala ere, ezin dugu ahaztu euskarak aparteko bultzadaxo bat behar duela, erdarak ez duen minorizazio egoeran dagoelako.

### **Berritzea: helburua**

Asmoa ez da bateratzea soilik, horretaz gain, zaharkituta dagoenari arnas berria ematea ere badugu xede. Eta ez da itxura hutsa berritzea bakarrik: izanari ere erreparatu egin behar. Ez da ‘hura kendu eta beste honekin ordezkatu’, aldatze hutsagatik. Egungo

garaietara eta egoeretara egokitzea eskatzen du, egungo beharretara eta baldintzetara... eta ahal dela, begi bat geroari so.

Honekin esan nahi dut esapide zaharkituak erantzi beharrean gaudela, aukera garaikideagorik bada, behintzat. Esan liteke, baina, arazo hori erdararena dela bakarrik, tradizioa bezain zabalagoa baita erdarak duen esapide zaharrak iraunarazteko inertzia, eta euskarak, ordea, tradizio urriagoa izanda, esapide berriagoak dituen, ez duela eguneratzeko hainbesteko beharra. Bai... eta ez: gertatzen dena da euskarak dituen esapide “berri” asko erdarari orpoz orpo hartuak izan direla eta, hortaz, iturria bezain zentzubakoak gerta daitezke esapide horiek.

### **Teknikak: tresnak**

Alde batetik, ordu erdian eta orri gutxitan ezin azaldu ikastaro luzean edo liburu batean azaldu beharrekoa. Horregatik, halabeharrez, hautaketa bat egin behar eta arazo gutxi batzuetara mugatuko dut neure jarduna: kasu edo testu batzuk aurkeztu, kontu deigarri batzuk aztertu, arazoak agerian utzi eta soluzioak proposatu.

Izan ere, gauza asko eta asko daude dagoeneko esanda eta idatzita euskarazko testuak estandarizatu, erraztu eta argitzeko zereginaren gainean. Eta, beste erakunde batzuetan egindakoa gutxietsi barik, ezin aipatu gabe utzi [IVAPek horretan argitaratutako lanak](#): Hizkera Argiaren Bidetik, [Argi idazteko bideak](#), [Argiro](#) eta IVAPeko Estilo Liburuak, herri administrazioetan idazkiak estandarizatzekotan, nire ustez, ezinbestean kontuan hartu beharreko lanak, denak. Beraz, hemen han dagoena errepikatu beharrean (astirik ez genuke eta), gaian sakontzeko norabidea erakutsi baino ez dut nahi lerro hauen bidez.

Beste aldetik, ‘teknika’ hitzak pentsaraz lezake errezeta magikoren bat edo batzuk eskaintzera natorrela, eta ez da hala: lanean izan dudana eskarmentuan, arazoei aurre egiteko aurkitu dudana hainbat trikimailu helarazi nahi dizuet, niretzat baliagarri izan zaidana zeuei ere baliagarria izango zaizuelakoan.

Hortaz, esango dudana ez hartu arautzat, baizik eta gomendio gisa. Ez geure akademiaren moduan, ez horixe: askoz maila apalean, zinez. Esaten denez, “doktoreak ditu Ama Eliza santuak”... eta ni, lanbide honetan, petrikiloa baino ez naiz. Ingeniariari barik, mekanikoari entzungo diozue. Hori bai, mekaniko honek ez dizue trokolarik salduko.

### **Administrazioko idazkiak: corpora**

Aztergaia. Aztertu behar dugun corpora.

Estandarizazioaz hitz egin dugunean esan dugu ohituraz, hitzarmenez, edo norbaiten aginduz estandarizatzen direla gauzak, estandar bihurtzen direla, ohiko bilakatu. Eta horien artean dago, lehena, administrazioan gehien gurtzen den legea: ohitura. Izan ere, horrexek bedeinkatu ditu, eta iraunarazi, garaiotan arrazoiz kanpokoak iruditzen zaizkigun testu eta esamolde asko.

Bai, egia da azken urteotan zertxobait hobetu dela administrazioko testuen kalitatea, baina oraindik ere asko eta asko dago egiteko. Edo desegiteko, hobe esanda, zeren, hain kaxkarra da batzuetan administrazioko testuetan aurkitzen dugun panorama, gogoia ematen baitu, estandarizatu beharrean, zenbait testu *eztandarazteko*, zilegi bada, hitz jokoa egiteko, Akademiaren araua urratzea.

## Zer lortu nahi dugu?

Estandarizazioan abiatzen garenean hiru helburu hauei begira jokatzeko dugu:

- Soildu: beharrezkoa baino ez uztea. Alferrikakoa kendu, bai testu barruan, baita testu corpusean, alferrik errepikatutako antzeko eredia berdinduta. Kantitatea ez da kalitatea. Soberako edukiak oztopo izan daitezke testuen eraginkortasunari begira.
- Batu: eragile desberdinek modu bat eta berbera izatea. Lan prozedurak erraztea. Zeregin baterako testu bat izatea. Erakunde bateko langileek, lanpostuz mugituta ere, lanpostu berriko mekanika ikasten denbora luzeegia ez galtzeko.
- Zehaztu eta argitu: okerrak saihestea, hizkera zehatz eta argia erabiliz. Segurtasun juridikoa bermatzea. Komunikazioari lehentasuna ematea, testuek horixe bera baitute helburu nagusia, eta ez prozedura betetzea bakarrik.

## Zehaztasuna eta argitasuna, bateragarri ote?

Bada, bai: zehaztasunak ez du zertan testua ilundu, eta argitasunak ez du zertan zehaztasuna galarazi. Bien arteko oreka behar-beharrezkoa da: testuen lehenbiziko eginkizuna eta helburua komunikatzea da, eta egoki komunikatzeko beharrezkoak dira terminoek ematen duten zehaztasuna (gaizkiulerturik sortu ez dadin) baita esapideen argitasuna ere.

Hala ere, kontuan hartu: ulergarria den testuak zehaztasunik ez badu, ez da ulertuko guk nahi dugun hori, eta, aitzitik, zehatza den testua ulertzerik ez badago, hartzaileak ez dituelako ulertzen erabiltzen ditugun esapideak, pot. Kasu bietan ala bietan ez dugu komunikatzeko helburua erdietsiko.

Lehenago hainbat argitalpen aipatu ditut, idazkiak estandarizatzeko kontuan hartu beharrekoak. Horietan, hainbat aholku ere ematen dira, estiloaren gainean, hizkera argiaren alde. Eta erdarazko testuetarako ere baliagarriak dira horietariko asko, arazo komunak direlako. Izan ere, administrazioko euskarazko prosak dituen arazo asko administrazioko erdarazko prosa kaxkarrak eragindakoak dira.

Horretaz irakurri nahi duenak mesedegarri izango ditu [Daniel Cassany](#) irakaslearen liburuak: batetik, *La Cocina de la Escritura*, idazketa prozesuan oro har izaten diren arazoen gainean, eta bestetik, arlo profesional formalagoetan direnen gainean, *Afilar el Lapicero*. Eta diskurtsoen atzean zer dagoen atzematen ikasteko, *Tras las líneas*.

Aholku horiek lotu-lotuta daude gure gaiarekin, zeren estandarizazioa estiloa normalizatzea ere bada, bai estilo normalizatua ezartzea (“normal” hitzak “arauzko” adiera duela, arau baten arabera) bai estilo normala erabiltzea (“normal” hitzak “ulergarria” adiera duela, komunikazio egoerarekin egokia dena). Hau da, estandarizatzea ez da bakar-bakarrik itxura berdintsua duten idazki batzuen corpus bat atontzea.

Hona hemen zerrenda azkar batean aholku horietako batzuk:

- Aukeran hitz laburrak eta ezagunak
- Ez esaldiak beharrik gabe puztu, betelanak ez du dotoreziarik erakusten

- Estilo nominala baino naturalagoa du estilo predikatiboa euskarak
- Hizkera konkretua, abstraktuaren orde
- Egitura pasiboak ez gehiegi erabili
- Esaldi berean ezezko egitura gehiegi ez sartu
- Esaldi laburrak, luzeegiak baino hobe: ez sartu perpaus gehiegi esaldi berean
- Ez pilatu aposizioak
- Esaldian informazio nagusia aurreratu: saihestu atzerakarga
- Ez egin erlatiboazko kate luzeegirik
- Aditza leku logikoan kokatu
- Kontuz erdarazko gerundio okerren kalkoekin
- Errepikapenak erabili, neurritz baina, kohesioa indartzeko
- Testu antolatzaileak erabili
- Puntuazioa egoki erabilita kohesio handia izango dute idazkiek
- Tipografia aberatsa lagungarria da, neurritz eta argi hierarkizatua erabiliz gero
- Diseinua argia eta funtzionala izan behar da
- Lerroaldeak egituratu
- Zerbait ulertzen zaila da, adibideak eman
- Egokitu hizkera gaiari

Eta azkenik, baina ez alferrik, kontuan hartu beti hartzailea, ez baitugu geure buruarentzat idazten, geure ideiak, mezuak beste batzuei helarazteko baizik:

- Zer daki eta zer ez daki?
- Zergatik irakurri behar du gure idazkia?
- Zertarako irakurri nahi du gure idazkia?
- Non, nola eta noiz irakurri beharko du?
- Zer jarrera du gurekiko edo gaiarekiko?
- Zer espero du?
- Zein da bere adina eta sexua?

Esan bezala, ordu erdian nekez azal daitezke aholku hauek guztiak: onena, esandako argitalpenetara joan eta bertan sakontzea.

## Nola estandarizatu?

Aurren-aurrena, corpusa bildu behar da, eta ondoren, ondo sailkatu testuak, bakoitzaren helburuaz jabetuta. Horretarako, ezinbestekoa da erakundeko langileekin harremanetan jartzea. Askotan, testuen erabiltzaile maiztuenak diren neurrian, euren badakite hainbat testuk zer arazo duen, eta horrek lana aurrezten lagunduko digu.

Baina langileei geure proposamenen berri ere eman behar diegu, geuk hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan dugun ezagutza euren prozesuen eta kudeaketaren gainean duten ezagutzarekin osatu egingo baita, eta, hartara, estandarizazio lanaren emaitza eraginkorragoa izango da.

Testu barruko edukiak aztertzea izaten da lan nekosoena, testu bakar bateko edukiari bakarrik ez diogulako begiratu behar. Aitzitik, beste testu batzuetan ere ager daitezke testu batean aurkitu ditugun esapideak eta formulak, eta komenigarria da modu bertsuak

erabiltzea guztietan, ez berdintasun/berdinkeria itogarri bat lortzeko, ez. Garrantzitsua da administrazioeko erdararen ditugun automatismoak euskaraz ere lortzea. Bideak (eta amerikak) behin eta berriz bilatzen ez ibiltzeko.

Hori ere bada normalizatzea: gauzak esateko modu finkoak ezartzea, idazten duenak ahalik eta zalantza gutxien izan dezan, konfiantza sendotzeko eta, tamalez, ohikoa ez duen lan hizkuntzan aritu behar denean bere burua ez gutxiesteko.

Corpusa txikia denean, ez da zailegia antzeko esapideak identifikatzea, oroimen onekoak bagara. Baina corpusa erraldoia bada, eta horrelakoa izaten da erakunde askotako papergintza, oroimena ez da nahikoa.

Areago: kontuan izan, hamaika testu aztertzean hamaika modutan aurkituko dugula esapide berbera. Eta ez ditugu aurkitzen ditugun esapideak bakarrik sailkatu behar: horien ordezkoko esapide normalizatuak ere izan behar ditugu sailkatuta, eta baztertu beharreko esapideak ordezkatzeko eskura beti.

Horretarako RAM memoria ederra behar da, megabyte edo gigabyte askokoa, han-hemenka agertzen diren esapide guztiak gogoratu, identifikatu, bildu eta sailkatu ahal izateko. Eta, beraz, ordenagailuen eta software egokiaren bidez egin beharko dugu lan.

Zein? Bada, honetarako gutxi erabili bada, mesedegarriak izaten dira itzulpen memoriak darabiltzaten programak: [Trados](#) eta [Wordfast](#), esaterako.

Nola? Hizkuntza desberdinak balira bezala, A bertsioko testuak (normalizatu beharrekoak) A hizkuntza gisa identifikatuko ditugu eta B bertsioko testuak (normalizatutakoak) B hizkuntza gisa.

Bi bertsiotako esapideen arteko baliokidetzak ezarriz gero, eta arian-arian memoria elikatuz gero, testu prozesatzaileen bidez gero eta errazago normalizatuko ditugu testuak, aldeztatik finkatu ditugun soluzioak programak berak eskainiko dizkigu eta.

## ARAZO PRAKTIKO BATZUK

Gatozen orain arlo praktikora.

Testu batzuk ekarri ditut hona, testu gisa osorik baitira arazo, ez barruko arazoren bat edo beste badutelako, arazoa osotasunean dutelako baizik. Batzuetan, diseinua izango da arazoa, beste batzuetan informazioaren antolaketa edo errepikapena, beste batzuetan, berriz, koherentzia. Atal hauetan banatu ditut:

- Formulario moduko ziurtagiriak
- Iragarkiak
- Eranskinak
- Eginbideak

## Formulario moduko ziurtagiriak

Sari ikusten dira honelako formularioak, eta behin baino gehiagotan suertatu zaigu — *suertatu* aditzak dituen konnotazioen aurka— honelakoak euskaratzea. Eta oraindik ez bada gertatu, lasai... bizitza luzea da eta.

Yo, \_\_\_\_\_, secretario judicial del  
 juzgado \_\_\_\_\_ nº \_\_\_\_ de  
 \_\_\_\_\_, certifico que D./Dña.  
 \_\_\_\_\_, con DNI  
 \_\_\_\_\_, ha comparecido en éste juzgado el día \_\_\_\_ de  
 \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_, de \_\_\_\_ a \_\_\_\_\_, y para que conste  
 expido el presente en \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de  
 \_\_\_\_\_.

Fdo. El Secretario Judicial

Nolabaiteko estandarizazio baten emaitza dira testu hauek, baina, tamalez (eta ohi denez), hizkuntza batean bakarrik pentsatu da estandarizazioa. Horren ondorioz, mila komeria ikusten ditu horrelako testuak euskaraz ere paratu behar dituenak. Arazo askotxo dituzte testu hauek, baina arazo nagusi bi azpimarratu nahi nituzke:

- Batetik, erdararen joskeraren arabera egokitu dira hutsuneak eta erdara hizkuntza prepositiboa izanik, hutsuneen aurretik kokatzen da hutsunea betetzen lagunduko digun informazioa. Hala ere, ez da beti horrela izaten, birritan edo irakurri behar izaten dira testuak edo pasarteak hutsune batzuetan zer jarri behar dugun asmatuko badugu. Zergatia? Azken testua, hau da, hutsuneak betetakoan dugun testua IRAKURTZEARI begira diseinatu dira testu hauek, eta, berez, BETETZEARI begira egin beharko litzateke diseinua. Hots, informazioa ESKATZEARI begira. Izan ere, diseinu hauen helburua ez da bakarrik adierazpen bat egitea (hau edo hura ziurtatzea). Aitzitik, testua osatzeko informazioa eskatzea ere bada. Horregatik, modu funtzionalagoa behar du diseinuak, helburu biak egokiago uztartzen dituen.
- Eta bestetik, testua bete behar duenaren lana ez da optimatzen, informazioa errepikatuta sartu behar duelako, hutsuneetan sartu beharreko informazioa birritan sartu behar delako, hizkuntza batean lehenik, eta bestean gero. Eta horrek beste arazo bat dakar: betetzen duenak bi hizkuntzak jakin behar ditu, bestela, zutabe bat hutsik geratuko da, bete gabe. Eta esan gabe doa diseinuari ere eragiten diola informazio batzuk birritan sartu beharrak: testua luzeagoa, handiagoa izango da eta batzuetan, letra tipoa txikitu egin beharko dugu den-dena orrialde bakar batean sartuko badugu.

Burua apur bat estututa, soluzio bat baino gehiago topa liteke, eta horra doakizue baliagarria izan daitekeen bat.

- Batetik, eskatzen diren datuak esaldietatik ateratzen badira, behin bakarrik bete beharko dira.
- Bestetik, formula performatiboak, hots, testua ziurtagiri bihurtzen dutenak, bete beharreko datuetatik askatuz gero, errazago antola daiteke testua, eta errazago ulertu ere.
- Horri beste zenbait hobekuntza gehitzen badiogu (izenburua, organoaren identifikazioa, etab.), askoz hobea.

Hona hemen soluzio bat:

**DONOSTIAKO ZIGOR ARLOKO 1 ZK.KO EPAITEGIA**  
**JUZGADO DE LO PENAL Nº 1 DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN**

**Teresa de Calcuta plaza, 1**  
**20012 Donostia**

<b><u>ZIURTAGIRIA</u></b>	<b><u>CERTIFICACIÓN</u></b>
<b>Epaitegian bertaratu izana</b>	<b>Asistencia a juzgado</b>

  

<b>Bertaratutakoa</b>	<input style="width: 90%;" type="text"/>	<b>NAN</b>	<input style="width: 90%;" type="text"/>
Persona asistente		DNI	

  

<b>Bertaratutako eguna</b>	<input style="width: 90%;" type="text"/>	<b>Ordu-tartea</b>	<input style="width: 30%;" type="text"/>	-	<input style="width: 30%;" type="text"/>
Fecha de asistencia		Horario de asistencia			

  

<b>Ziurtatzen dut adierazitako pertsona epaitegi honetan izan dela zehaztutako data eta orduetan.</b>	Certifico que la persona indicada ha comparecido en este juzgado en la fecha y horas detalladas.
<b>Eta horrela jasota gera dadin, agiri hau izenpetzen dut.</b>	Para que conste, expido el presente certificado.

  

Donostia, \_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_(r)en \_\_a Donostia, a \_\_ de \_\_\_\_\_de \_\_\_\_

**IDAZKARI JUDIZIALA**  
**EL/LA SECRETARIO JUDICIAL**

[Idazkariaren izen-abizenak / Nombre y apellidos del secretario]

Funtsean, informazioa berrantolatu egin dugu eta funtzio bera duten osagaiak multzo berean kokatu. Ziurtagiriak eduki mota batzuk ditu: batetik, ziurtatutakoa (ziurtatu nahi duguna: nor-noiz-non); bestetik, ziurtatzailearen identifikazioa (ziurtagiriari zilegitasuna ematen diona: organoa eta idazkariaren identifikazioa); azkenik, ziurtatzeko formula performatiboa (testua ziurtagiri bihurtzen dutenak: “ziurtatzen dut” eta, jakina, izenburua bera).

Antzeko arazoak gertatzen dira eskaera orrietan. Baina horrelakoetan, kontuan hartu behar dugu idazkiak edo formularioak hartzaile bi dituela:

- Lehen, herritarra edo formularioa bete behar duen interesduna. Kasu honetan, formularioaren helburua da informazioa ahalik eta zuzenena eta osoena lortzea. Eta horretarako, bete beharreko hutsuneak argi utzi behar zaizkio formularioa bete behar duenari. Hau da, zer behar dugun argi utzita, hartzaile horren ikuspegia hartuta.

- Bigarrena, eskari orriaren izapidetza gauzatu behar duen langilea. Hots, formularioan sartutako informazioa erauzi, atera behar duena, datuak aplikazio informatiko batean edota datu base batean sartu behar dituen hori. Beraz, datuak erraz aurkitzeko eta identifikatzeko moduan kokatu behar dira testuan, hartzaile horren beharren arabera.

## Iragarkiak

Adibide berri-berria, labetik honakoa, asteburu honetan argitaratu baita iragarki hau:

B A R A K A L D O	A Y U N T A M I E N T O	
	IRAGARKIA	ANUNCIO
	Udaleko Alkatetza-Lehendakariak deialdi publikoa egitea erabaki du informazio zientzietako lizentziatu bat, kazetaritza adarrekoa edo kazetaritza lizentziatua, bitarteko langilea izendatzeko, "Barakaldoko Udaleko erakundeen komunikazio politikan laguntzea" izeneko egitaraua garatu ahal izateko. Hasiera batean, egitaraua urtebeteko apean burutuko dela uste da.	La Alcaldía Presidencia de este Ayuntamiento ha acordado efectuar convocatoria pública para proceder al nombramiento interino 1 licenciado en ciencias de la información, rama periodismo o licenciado en periodismo, para el desarrollo del Programa denominado "Apoyo a la política de comunicación institucional del Ayuntamiento de Barakaldo", programa que se estima pueda ejecutarse en el transcurso de 1 año.
	Iragarki hau argitaratu eta hurrengo <b>8 egun naturaletan</b> jasotako eskabideak onartuko dira. Instantziak Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta korporazioaren Erregistro Nagusian bulego orduetan aurkeztuz, edota Herri Administrazioen Erregimen Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko indarrean den Legearen 38-4 artikuluan zehaztutako beste edozein prozedura baliatuz (urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldarazitako azaroren 26ko 30/92 Legea) egingo da eskaria.	Se admiten solicitudes, mediante instancias dirigidas al Sr. Alcalde Presidente del Ayuntamiento, durante el plazo de <b>8 días naturales</b> contados a partir del siguiente al de publicación del presente anuncio y se presentarán en el Registro General de la Corporación en horario hábil de oficinas o por cualquier otro procedimiento de los determinados en el art. 38-4 de la vigente Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo (Ley 30/92 de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/99 de 13 de enero).
	Dagokion deialdia eraentzeko onartu diren oinarriak Barakaldoko Udaleko Ediktuen Oholtzan eta <a href="http://www.barakaldo.org">www.barakaldo.org</a> web orrian jarri dira jendaurrean.	Las Bases aprobadas para regir la correspondiente convocatoria quedan expuestas al público en el Tablón de Edictos y en la página Web <a href="http://www.barakaldo.org">www.barakaldo.org</a> del Ayto. de Barakaldo.
	Era berean, interesatuek deialdi honi buruzko informazioa Barakaldoko Udaleko GGBB eta Herritarren Segurtasuna Arloan (Udaletxeko 5. solairua), Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (alboko eraikineko beheko solairua) eta web orrian jaso dezakete.	Asimismo, los interesados pueden recabar información sobre esta convocatoria en el Área de RR.HH. y Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento (5ª planta de la Casa Consistorial), Servicio de Atención al Ciudadano (edificio anexo planta baja) y en la página Web del Ayto. de Barakaldo.
	Barakaldo, 2009ko urtarrilaren 23a. ALKATE-LEHENDAKARIA, Antonio J. Rodríguez Esquerdo	Barakaldo, 23 de enero de 2009 EL ALCALDE-PRESIDENTE, Antonio J. Rodríguez Esquerdo
	U D A L G O R E N A	

Ikusmen pribilegiatua duenak ikusiko du lan eskaintza bat dela: kazetaria behar du udalak, udaleko erakundeen komunikazio politikan laguntzeko egitarauan lan egiteko, eta horretarako deialdi publikoa egin du.

Baina... ez dela ikusten? Bada, horrelaxe argitaratu zen egunkarietan, tamaina honetan: 15x6,5 cm. Hala ere, arazoa ez da tamaina, baizik eta sartu dugun informazioaren kopurua eta horren egitura, kontuan hartu barik zer baldintzatan argitaratuko zen (hau da, tamaina eta, egunkarian txertatuta, beste testu askorekin lehian, inork ez baititu egunkariko testu guztiak irakurtzen).

Beraz, geure iragarki bat irakur dadin, deigarria egin behar dugu, balizko interesdunen arreta berehala erakartzeko. Ziur-ziur, oso jende gutxik irakurriko zuen iragarkia, eta horrexegatik huts egiten du bere funtzio nagusian testu honek: ez da lortzen iragartzea, informazioa jendartera zabaltzea.

Arazoa ez da ahuntzaren gaueko ezutula, ez baita bakarrik iragartzen huts egin izana (lanpostua modu egokian betetzeko hautagai gutxi izango ditu udalak, izan litezkeen baino gutxiago, alegia, eta, gainera, iragarkia alferrik ordaindu da...). Horretaz gain, erakundearen gardentasuna kolokan gerta daiteke, testua horrela diseinatuta, informazioa iragartzeko barik, ezkutatzeko egin dela ematen baitu, eta ez litzateke harritzekoa izango lanpostua eska lezakeen norbaitek, iragarkiaz konturatu ezean, izen eman ez eta lana lortzeko aukera hori galduta, isilpeko interesak bilatuko balitu.

Baina, beharbada, ez da hori iragarkiaren diseinuaren arrazoia (... edo arrazoi bakarra, auskalo). Beharbada, iragarkiaren helburuari begiratu beharrean, PROZEDURARI baino ez zaio begiratu. Alegia, horrelako deialdiak egiten direnean, behartuta daude erakundeak modu publikoan egitera eta horregatik iragarri egin behar dituzte, eta iragarri, iragarkiak jarriz egiten dute. Prozedurak eskatzen duena bete egin da. Kitto. Hala ere, iragarri beharrendaren HELBURUA ahaztu egin da: ez da ezer iragartzen. Eta, hartara, ondoriozta liteke ez dela legeria bete, iragartzeko beharra ez dugula bete.

Soluzioa? Behar ez dena, kendu, eta sartu beharreko edukia modu sintetizatuagoan eman. Iragarkian ezin direnez deialdiaren oinarri guztiak jarri, funtsezkoena baino ez utzi eta, jakina, informazio osagarria non topa daitekeen argi utzi. Iragarri behar den garrantzitsuena hauxe da:

- kazetari lanaren eskaintza
- kontratuaren iraupena
- izen emateko epea, bideak eta tokia
- informazio osagarria eskuratzeko tokia.

Horren aldean, zein desberdina den egun berean argitaratu zen beste iragarki hau, benetako neurrietan, lanpostu mota bera eskaintzen duena:

**Busturialdeko hitzak  
KAZETARIA behar du:**

**Eskaintzen da:**

- Etorbizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera.

**Eskatzen da:**

- Kazetaritzan, Euskal Filologian edo Historian lizentziaduna edo ikasle izatea.

**Kontuan hartuko da:**

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea.	- Hizkuntzak jakitea.
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea.	- Eskualdea ondo ezagutzea.
- Autoa izatea.	- Diseinu lanak egiten jakitea.

**Bidali zure curriculuma helbide elektroniko honetara:  
busturialdea@busturialdeko hitza.info**

Diseinu erakargarria, argia eta garbia. Bi lerrotan, norik zer behar duen. Eta gero lau atal: zer eskaintzen den, zer eskatzen den, zer hartuko den kontuan, eta eskaria egiteko bidea. Ziur nago askoz jende gehiagok irakurri zuela iragarki hau bestea baino.

## Eranskinak

Askotan gauza gehiegi sartzen ditugu testu batean, dena behar-beharrezkoa delakoan. Batzuetan ez da horrela izaten eta nahikoa da soberazkoa kentzea, orraztu bat egin ostean. Baina... den-dena bene-benetan sartu behar baldin bada? Bada, horrelakoetan informazioaren hierarkia aztertu eta garrantzitsuena aurreratu testua: lehen mailako informazioak aurreratu eta bigarren mailakoak, bigarren.

Arazoa bereziki larria izaten da informazio multzoak handiak direnean, edo testu batean beste testu batzuk txertatu behar ditugunean. Horrelakoetan, onena, testu nagusian aipatu eta eranskin gisa txertatzea, horrela ez baitute irakurketa oztapatuko.

Badut horren adibide eder bat, baina formatu arazoak direla eta, dokumentu honen amaieran sartu dut... [eranskin gisa](#). :-)

Manamendu bat da, Foru Aldundiak Jabetza Erregistrora bidaltzekoa, enbargo baten aurreneurizko oharra egin dezaten bertan. Testuan bertan txertatuta daude enbargatzeko

probidentzia (orrialde laurdena harturik) eta enbargatzeko eginbidea (orrialde bat harturik), enbargoaren nondik norakoak azaltzeko, eta, hala, orrialde bi ditu manamenduak.

Testua manamendua izanik (hau da, zerbait egiteko eskatzea) xelebrea da testuak narrazio egitura izatea: erregistroko arduradunari pelikula guztia kontatzen zaiola, bi orrialdetan, eta, azkenean, bigarren orrialdearen bukaeran esaten zaio zer eskatzen zaion. Egitura ez da batere egokia, zeren idazkiaren helburua zerbait egiteko eskatzea den arren, hartzaileak ez du jakingo zer bidali dioten ezta zertarako den ere, testua amaitu arte. Hitchcock maisuaren filmetan bezalaxe.

Soluzioa? Erraza: aurrena, enbargoa egin dela eta, hau eta hura egiteko eskatzen zaiola esatea, eta ondoren, bi eranskinetan probidentzia eta eginbidea jarri, enbargoaren gaineko informazio zehatza (interesduna, enbargatutako ondasunak...) topa dezan. Eta, jakina, izenburua jarrita, komunikazioa zabaldu eta berehala jakin dezan zer motatako testua jaso duen, eranskinaren azken bi orrialdeetan ikusten den bezalaxe.

## Eginbideak

Hurrengo adibideak neure lan arlotik dakartzat, justiziaren arlotik, alegia: eginbide bi.

Eginbideak zer diren? Hara: auzitegiko langile batek errekerimendua egin behar dio herritar bati, eta horretarako, helbide jakin batera joan eta interesdunari edo, bera ez badago, bertan topatzen duen norbaiti egiten dio errekerimendua, informazioa ahoz eta idatziz emanaz, eta egintza burutu dela egiaztatzeko, sinatu egiten du eginbidea eta hartzaileari ere sinarazi egiten dio.

Lehena, isuna ordaintzeko errekerimendua da:

### Diligencia de requerimiento de pago de multa

En Irun a 28 de enero de dos mil ocho.

Siendo las \_\_ horas, yo, el/la \_\_\_\_\_ me personé en el domicilio de D/D<sup>a</sup> **[interesdunaren izen-abizenak]**, sito en **[egoitza]**, a fin de practicar la diligencia que viene acordada.

Se entiende la diligencia con \_\_\_\_\_, mayor de catorce años, en su calidad de \_\_\_\_\_, a quien requiero mediante entrega de la copia de cédula de requerimiento comprensiva de los requisitos legales, para que en el [acto] / [en el plazo de **[epea]** días] ingrese en la cuenta corriente del juzgado que en la cédula se señala, la cantidad de **[kopurua]** euros en concepto de **multa**, bajo apercibimiento de que si no lo hiciera se procederá a su exacción por la vía de apremio, y de no localizarse bienes quedará sujeto a una responsabilidad personal subsidiaria de un día de privación por cada dos cuotas no satisfechas, que podrá cumplir en régimen de arrestos de fin de semana.

Se hace saber al receptor la obligación que tiene de entregar la documentación a su destinatario tan pronto regrese a su domicilio.

Con lo que se da por terminada la diligencia que firma el receptor de la cédula.

[Firma]

Bigarraena, ordea, judiziora joateko zitazioa da:

**Diligencia de citación a juicio verbal al demandado**

[...]

Se entiende la diligencia con \_\_\_\_\_, mayor de catorce años, en su condición de \_\_\_\_\_, a le doy traslado de la demanda presentada, citándole para que comparezca ante el juzgado arriba referenciado el DÍA [eguna] de [hila] a las [judizioaren ordua] horas, apercibiéndole de que por su inasistencia no se suspenderá la vista.

[...]

Ikusten denez, nolabaiteko estandarizazioa izan dute idazkiok, baina... ustela. Zergatik?

Bada, testuan aukera bi jaso nahi dira: bata, interesduna topatzen denekoa; bestea, bera topatu ez eta haren ordez, beste lagun bati egiten zaionekoa. Bi aukerak ez dira modu berean jaso behar, isuna ordaindu edota judiziora joan, kasuan kasuko interesdunak baino ez duelako egin behar, eta ez haren ordez topatu dugun pertsonak, jakina.

Hala ere, testuari erreparatuta (eta hori da ulertu behar dena, ez guk aldeztu aurretik dakiguna), sinatzen duen pertsonak, interesatua dela, bizilaguna dela, horrexek berak egin behar du isuna ordaindu edota judiziora joan, eta bestela, horrexek jasoko du dagokion zigorra ordainetan.

Beraz, lasai-lasai sinatuko ote genuke idazkia auzitegikoa geure etxera etorri, interesduna topatu ez eta geuri emango baligute errekerimendua? Nik, behintzat, ez. Eskubide osoa edukiko genuke horri uko egiteko, eta, ondorioz, langilea auzitegira itzuli beharko litzateke egin beharrekoa burutu ezinik eta 'ezezko eginbidea' deritzana eginik.

Hortaz, beste behin ere saiatu beharko litzateke errekerimendua egiten, eta epeak luzatu eta luzatu egingo lirateke eta justiziaren ibilera areago moteldu (eta horretarako ez da giro, gero).

Eta kontua areago korapilatzeke, hutsuneak, eskuz bete behar dira, eta ahal dela, behin bakarrik, nahiz eta testua hizkuntza ofizial bietan eman. Ziurtagiriaren adibidean ikusi dugun bezala, hutsune horiek testutik, esaldietatik atera beharko genituzke, erraz betetzeko moduko formulario itxura emanaz.

Oraindik ere ez daukagu testuaren soluzioa eginda, nahiz eta proposamenik falta ez. Baina kontua da Justizian, erakunde askoren arteko bilgunea izanik (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Justizia Ministerioa, Jaurilaritza), ezin dugula nahi duguna nahi dugun moduan egin. Erdarazko testuak batzorde batean finkatzen dira eta, esan beharrik gabe, diseinua erdararen beharren arabera eta erdararen mesede. Eta gero, normalkuntza teknikariak eta itzultzaileak zoratu beharrean, malabarismoetan eta joskera ingeniarietan, euskarazko testua ahal den moduan, ozta-ozta, eta ez behar den bezala, txertatzeko.

Soluzioa zein da, beraz? Bada, nik neuk ez dizuet esango, ez baitiet ondoko lagunei gaia zapaldu nahi. Izan ere, [korredakzioa](#) da horretarako bidea. Ez honelako testuetan bakarrik: elebrietan egin behar diren guztietan baizik. Eta horretaz, Zelai Nikolasek eta Oskar Aranek nik baino hobeto jardungo dute.

JAKINAK, KO ZERGA BULEGOKO BURUAK, DON, JEFE DE LA OFICINA TRIBUTARIA  
 .....GARREN ERREGISTROAN JABETZAREN AL SEÑOR REGISTRADOR DE LA PROPIEDAD  
 ERREGISTRATZAILE DENARI ONDOKO HAU ENCARGADO DEL REGISTRO NUMERO

**JAKINARAZTEN DIO:** rekin zorrak izateagatik goian adierazitako zenbakia duen premiamenduzko espediente administratiboan ireki zela jarraian aipatzen denaren aurka:

**HACE SABER:** Que en expediente administrativo de apremio instruido bajo el número arriba indicado al deudor a

IZENA/NOMBRE: IFZ/NIF:  
 HELBIDEA/DOMICILIO:

Geroago zehaztuko diren bere zor horiengatik, Bahitura Probidentzia eman zen espediente honako datatz:

por los débitos que luego se dirán, fue dictada Providencia de Embargo, con fecha:

Hitez hitz honela dio:

cuyo tenor literal es el siguiente:

**PROBIDENTZIA.-** Zordunari zorrak jakinarazi zaizkio eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamenduak 97. artikuluan ezartzen duen epea igaro da horiek oraindik ordaindu gabe. Hortaz, probidentzia honen bidez, eta aipatu erregelamenduak 99. artikuluan jasotakoaren arabera, zordunaren ONDASUN ETA ESKUBIDEAK BAHITUKO DIRA zor nagusia, sortutako berandutza interesak, premiamenduzko errekaruak eta prozeduraren kostuak ordaintzeko behar besteko kopuruan. Prozeduran Erregelamenduko I. tituluaren III. liburuko IV. kapiutuan adierazitako ordena eta mugak hartuko dira kontuan”.

**"PROVIDENCIA.-** Notificados los débitos al deudor y transcurrido el plazo previsto en el artículo 97 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa sin que se hayan satisfecho, por la presente providencia y, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 99 del citado Reglamento, procédase al EMBARGO DE LOS BIENES Y DERECHOS propiedad del deudor, en cantidad suficiente para cubrir los débitos por principal, intereses de demora devengados, recargos de apremio y costas causadas, observándose en el procedimiento el orden y limitaciones del Título I, Libro III, Capítulo IV, del referido Reglamento”.

Erabaki hori betetzeko, .....ko .....aren .....(e)an honako diligentzia hau egin zen:

En cumplimiento de dicho acuerdo, a ..... de ..... de ..... se practicó la siguiente DILIGENCIA:

**ONDASUN HIGIEZINAK BAHITZEKO DILIGENTZIA.-** Premiamenduzko administrazio prozedura honetan egindakoak aztertu ondoren, agerian gelditu da legez premia eta jakinarazi diren zorrak ez direla ordaindu Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamenduak 97. artikuluan ezartzen duen epea igaro arren. Lehentasunez bahitu daitekeen beste ondasunik ezagutzen ez denez, diligentzia honen bitartez **BAHITUZAT JOTZEN DITUT** ondoren zehazten diren zordunaren ondasun higiezinak, jarraian adieraziko diren zorrak ordaintzeko:

**DILIGENCIA DE EMBARGO DE BIENES INMUEBLES.-** Vistas las actuaciones del presente procedimiento administrativo de apremio y estando los débitos comprendidos en el mismo reglamentariamente apremiados y notificados sin que, transcurrido el plazo señalado en el artículo 97 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se hayan solventado los mismos. Desconociéndose otros bienes preferentemente embargables, por la presente diligencia **DECLARO EMBARGADOS** los inmuebles propiedad del deudor, que a continuación se describen, por los débitos que se detallarán

**ZORDUNAREN IZENA/NOMBRE DEL DEUDOR:**

**BAHITUTAKO ONDASUNAK/BIENES EMBARGADOS:**

**Erregistroko inskribapena/Inscripción Registral:**

ALEA / TOMO	LIBURUA / LIBRO	FOLIOA / FOLIO	FINKA / FINCA	ERREGISTROA / REGISTRO

Azalpena, kokapena eta edukiera:

Descripción, situación y cabida:

Bahitutako finken gainean zordunak duen eskubidea:  
 Bahitura honen eraginez, lehen azaldu diren finkak espediente honetako zordunaren erantzukizunei geratzen dira lotuta honako zor hauek direla eta: **(Kontzeptuak)**

Derecho del deudor sobre las fincas embargadas:  
 Las fincas anteriormente descritas quedan afectas por virtud de este embargo a las responsabilidades del deudor de este expediente, por su débito de los conceptos de **(conceptos)** importante la cantidad de

<b>ZORRA/DEUDA</b> .....	
<b>BERANDUTZA INTERESAK/INTERESES DE DEMORA(*)</b> .....	
<b>AURREIKUSITAKO KOSTUAK/COSTAS PREVISTAS</b> .....	
<b>BATURA/SUMA</b> .....	

(\*) Borondatezko ordainketaldiaren amaieratik ordainketa egunera bitartean / Los que se devenguen desde la expiración del periodo de ingreso voluntario hasta la fecha de pago.

Horri zor osoa ordaindu arte sortzen diren berandutza interesak gehitu behar zaizkio.

Jabetza Erregistroan bahitura horren prebentziozko oharpena egingo da honen alde:

mas los intereses de demora que se originen hasta la total extinción de la deuda.

Del citado embargo se tomará anotación preventiva en el Registro de la Propiedad a favor de:

Diligentzia honen berri zordunari, eta hala badagokio, ezkontideari, hirugarren jabeai eta, baldin badaude, hartzekodun hipotekarioei emango zaie, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamenduak 113.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta baita eskatu ere, bahitutako ondasunen jabetza titulua prozedurara ekar ditzatela hiru eguneko epean, udalerrian bizi badira, edo hamar egunekoan, kanpoan biziz gero. Horrela egin ezean, Jabetza Erregistroak haien kontura egingo duen ordezkio egiaztagiria erabiliko dela ohartarazten zaie.

Aipatu erregelamenduaren 114. artikuluan xedatutakoaren arabera, agindua bidaliko zaio Jabetzako Erregistratzaileari behar diren jarduketak egin daitezzen, eta egindako guztia Zerga Bulegoak Koordinatzeko zerbitzaburuari igorriko zaio gero, honek enkanterako baimena eman dezan aipatutako Erregelamenduak 136. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Zordunari eta, hala bada, ezkontideari bahitura jakinarazi zaionez, Erregistro horri agindu hau bidaltzen diot, ale hirukoitzez, bide batez eskatzeko agindua aurkezteko egintzan horietako bat bidal diezadazun "hartu izana" adierazita. Halaber, eskatzen dizut bere egunean beste ale bat igor dezazula batituraren prebentziozko oharpena \_\_\_\_\_ren alde egin dela egiaztatuz edo berau egitea galarazi duten arrazoiak, somatutako akatsak eta horiek konpontzeko modua azalduz. Azken honi erantsita, finka bakoitzaren gainean Erregistroan dauden kargen ziurtagiria ere igorri beharko duzu finken xehetasunak emanez, titularitateak adieraziz eta finkaren jabea eta helbidea zeintzuk diren azalduz.

Notifíquese esta diligencia al deudor y en su caso, a su cónyuge, a los terceros poseedores y a los acreedores hipotecarios, si los hubiera, conforme a lo dispuesto en el artículo 113.2 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, requiriendo a aquellos para que en término de tres días, si residen en la localidad, o de diez días, si son forasteros, aporten al procedimiento los títulos de propiedad de los bienes embargados, advirtiéndoles de que, si no lo hicieran, serán sustituidos a su costa por certificación supletoria expedida por el Registro de la Propiedad.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 114 del citado Reglamento, expídase mandamiento al Sr. Registrador de la Propiedad y llévase a cabo las actuaciones pertinentes y remisión, en su momento, de lo actuado a la Jefatura del Servicio de Coordinación de Oficinas Tributarias, para la autorización de subasta, conforme a lo dispuesto en el artículo 136 de dicho Reglamento.

Notificado el embargo al deudor y, en su caso, a su cónyuge, dirijo a ese Registro el presente mandamiento por triplicado, rogándole que en el acto de su presentación tenga a bien devolverme uno de los ejemplares con el "recibí" y otro en su día con la nota acreditativa de haber quedado extendida la anotación preventiva de embargo a favor de \_\_\_\_\_ (o los motivos que impidan practicarla, los defectos advertidos y medios de subsanarlos), acompañando al mismo certificación de las cargas que figuren en el Registro sobre cada finca, con expresión detallada de las mismas y de sus titularidades, incluyendo en la certificación al propietario de la finca y su domicilio.

, 200 ko  
, a de

aren (e)an  
de 200

ZERGA BULEGOKO BURUA/EL JEFE DE LA OFICINA TRIBUTARIA,

Sin./Fdo.:

# jatorrizko testua:

## 2. orrialdea

MANDATUA	MANDAMIENTO	
ENBARGOAREN AURRENEURRIZKO IDATZOHARRA	ANOTACIÓN PREVENTIVA DE EMBARGO	
Zerga bulego honetan premiamenduzko prozedura irekita dugu zordun honen aurka:	En esta Oficina Tributaria se está siguiendo un procedimiento de apremio contra este deudor:	
<b>ZORDUNA / DEUDOR</b>		
<b>Izen-abizenak</b> Nombre y apellidos	<b>NAN</b> DNI	
<b>Helbidea</b> Domicilio		
Prozedura horretan, <b>enbargatzeko probidentzia</b> bat eman da eta, ondoren, <b>enbargatzeko diligentzia</b> bat egin da. Idazki honekin batera doazkizu biak.	Dentro de dicho procedimiento se ha dictado una <b>providencia de embargo</b> y, asimismo, se ha practicado una <b>diligencia de embargo</b> , las cuales se adjuntan a este escrito.	
Zordunari (eta, baldin bada, ezkontideari) enbargoa jakinarazi ondoren, Erregistro horretara mandatu honen hiru ale bidaltzen ditut, ondoko egitekoak bete ditzazun:	Tras haber notificado el embargo al deudor (y, en su caso, a su cónyuge), le envío el presente mandamiento por triplicado para que se actúe de la siguiente manera:	
1.- Lehen-lehenik, mandatu honen ale bat bidali beharko didazu, hartu izana adierazita.	1.- En primer lugar, deberá devolverme uno de los ejemplares del presente mandamiento con el acuse de recibo.	
2.- Enbargoaren aurreneurritzko idatzoharra egin beharko duzu, honen alde:	2.- Deberá extender una anotación preventiva de embargo a favor de:	
Sr./Sra. <input style="width: 50%; border: 1px solid black;" type="text"/>	jauna/andrea	
3.- Ondoren, ale hauetako beste bat bidali beharko didazu, ohar bat erantsita. Ohar horren bidez egiaztatuko da enbargoaren aurreneurritzko idatzoharra esan bezala egin dela. <b>Ezin bada idatzoharra egin</b> , horren zergatia azaldu beharko da, baita zer akats dauden eta horiek konpontzeko modua ere.	3.- Deberá devolverme otro ejemplar de este mandamiento con una nota que acredite que la anotación preventiva de embargo se ha extendido de la manera indicada. <b>Si no es posible extender la anotación preventiva</b> , se expondrán los motivos, los defectos advertidos y el modo de subsanarlos.	
Ale horri erantsita, ziurtagiri bat bidaliko da, finka bakoitzak Erregistroan jasota dituen kargak adierazteko, eta bertan, honako hauek zehaztuko dira:	El ejemplar se acompañará de un certificado de las cargas que figuren el Registro sobre cada finca. En ese certificado se detallarán:	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Finkaren jabea eta haren helbidea.</li> <li>- Kargak zein diren eta titularrak nor diren.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- El propietario de la finca y su domicilio.</li> <li>- Las cargas y sus titulares.</li> </ul>	
, 200 ko , a de	aren (e)an de 200	
<b>ZERGA BULEGOKO BURUA/EL JEFE DE LA OFICINA TRIBUTARIA,</b>		
Sin./Fdo.:		

1. eranskina

1º anexo

ENBARGATZEKO PROBIDENTZIA	PROVIDENCIA DE EMBARGO
Zordunari zorra jakinarazi zaio, baina ez du epean ordaindu, alegia, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamenduak 97. artikuluan horretarako ezarritakoan.	Se ha notificado la deuda al deudor, pero éste no la ha pagado en el plazo previsto en el artículo 97 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
Hortaz, eta Erregelamenduak 99. artikuluan jasotakoaren arabera, zordunaren <b>ONDASUN ETA ESKUBIDEAK ENBARGATZEKO</b> agindua ematen dut.	Por ello, y de acuerdo con el artículo 99 del citado Reglamento, ordeno que se <b>EMBARGUEN LOS BIENES Y DERECHOS</b> que sean propiedad del deudor.
Enbargoa zorraren balioaren adinakoa izango da, berandutza interesak eta prozeduraren kostuak barne. Enbargatzeko prozeduraren ordena eta mugak kontuan hartuko dira, Erregelamenduko I. tituluaren III. liburuko IV. kapituluaren arabera.	El embargo se realizará hasta alcanzar el importe de la deuda detallada, incluidos los intereses de demora devengados y las costas causadas. Asimismo, en el procedimiento se seguirá el orden y limitaciones del título I, libro III, capítulo IV del referido Reglamento.

